4. inprimakia

Inprimaki honek arazketa- eta ebakuazio-instalazioen eta kontrol-elementuen deskribapena biltzen du. Inprimaki hau betetzeko, **idatzi letra larriz, eta markatu gurutze batez** dagozkion laukitxoak. Eman **ahalik eta informazio gehien,** eskaera behar bezala izapidetzeko.

Espediente-zenbakia:	

Espediente-zenbakia izanez gero bakarrik bete behar da.

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

1 Arazketa- eta ebakuazio-instalazioen eta kontrol-elementuen deskribapena

a) Datu orokorrak

HUAren oinarrizko datuak

Instalazioa. Zk.[i]:		HUAren izena:		HUAren kode ofiziala[ii]:	

Instalazioaren datuak

☐ Instalazioa proiektu-fasean dago	Aurreikusitako exekuzio-data:	
☐ Instalazioa lehendik dago	Eraiki zeneko urtea:	

Jabearen datuak

Izen-abizenak /Sozietatearen izena:	NAN/IFZ/AIZ/Pasaportea:

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

Kokapena

L. historikoa:		Udalerria:		UTM 30N ETRS 89 koordenatuak (berrikusi hemen: https://www.uragentzia.euskadi.eus/uraren-euskal-agentziaren-informazio-geografikoko-bisorea/webura00-minima/eu/)(*):
Poligonoa:		Lurzatia:		UTMX: UTMY:

ETRS 89 sistema erabiltzen da, dekretu hau oinarri hartuta: 1071/2007 Errege Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duena.

Nor arduratzen den instalazioa kudeatzeaz(iii)

Sozietatearen izena:		Telefono-zenbakia:		Helbide elektronikoa:	

i. Arazketa-sistemaren deskribapena

Hiriko isurketak eta antzekoak(iv)

Markatu dagozkion aukerak.

☐Aurretratamendua	☐Erregulazio-tanga
	☐Arbastatzea
	☐Harea-kentzea
	☐Koipegabetzea
☐Lehen mailako tratamendua	☐Lehen mailako dekantazioa
	☐Fisiko-kimikoa
☐Bigarren mailako tratamendua	☐Lohi aktibatuak
	☐Iragazki biologikoak edo bioiragazkiak
	☐Urmaeleratzea
	☐Beste batzuk
☐Zorrotzagoa	☐Desinfekzioa (klorazioa)
	☐Nitrifikazioa-Desnitrifikazioa
	☐Fosforoa ezabatzea
	☐Ozonizazioa
	☐Ultramoreak
	☐Ultrairagazketa / Alderantzizko osmosia

☐Beste batzuk	

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

Arazteko gehieneko gaitasuna	m^3/h:
	Biztanle-baliokideak (isurketa biodegradagarrietarako soilik):
Funtzionamendu-araubidea	☐Jarraitua
	☐Urte-sasoikoa
Ur gordinak. Zk.[v]:	

Hirikoak ez diren isurketak[iv]

Markatu dagozkion aukerak.

☐Fisikoak:
☐Kimikoak:
☐Fisiko-kimikoak:
☐Biologikoak:
☐Beste batzuk (zehaztu):

Arazteko gehieneko gaitasuna	m^3/h:
	Biztanle-baliokideak (isurketa biodegradagarrietarako soilik):
Funtzionamendu-araubidea	☐Jarraitua
	☐Urte-sasoikoa
Ur gordinak. Zk.[v]:	

ii. Arazketa-prozesuaren diagrama[vi]

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

iii. Desbideratzeak (By-Pass)

Instalazioak ba al du aukerarik tratatu gabeko edo partzialki tratatutako hondakin-uren emariak desbideratzeko?	☐Bai ☐Ez
Baiezkoan, adierazi tratatu gabeko edo partzialki tratatutako hondakin-uren by-pass-en edo desbideratzeen kopurua:	
Azaldu labur-labur, halaber, zergatik egiten diren desbideratzeak eta zer egoeratan	

iv. Segurtasun-neurriak[vii]

Adierazi labur-labur zer segurtasun-neurri aurreikusi diren ustekabeko isurketak saihesteko (ordezko energia-iturriak, atxikipen-tangak, gainezkatzeak biltzeko kubeta, etab.)

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

v. Lohien helmuga[viii]

Adierazi labur-labur lohien helmuga (entitate kudeatzaile baimendua, udal-zabortegia, etab.)

vi. Kontrol-elementuak

Kontrolgunea. Zk.[ix]:		Lotutako isurgunea. Zk.[x]:	
Deskribatu kontrol-elementuen eta haien kokapenaren proposamena (laginak hartzeko kutxatila, sartzeko erraztasunak, emarien neurketa, etab.)			

Bete 4. inprimakiaren ale bat, adierazitako HUA bakoitzeko.

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

2 Ingurune Hartzailera Husteko Sistema

Koadro edo diagrama bat marraztu behar da, eta han laburbildu adierazpenean, aurretik betetako inprimaki hauetan, zehaztutako informazioa[xii].

3 Isuriak Ingurune Hartzailean Eragiten Dituen Ondorioen Ebaluazioa

Kontuan hartuko dira isuritako kutsatzaile motak, bakoitzaren karga eta kontzentrazioa eta ingurune hartzailearen ezaugarri fisikoak[xiii].

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

4 Isuriketa Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana

Isurketa zaintzeko eta kontrolatzeko planaren proposamen bat erantsiko da, honako alderdi hauek jasoko dituena[(xiv)]:

5 Isurketa-adierazpena betetzeko jarraibideak

4. INPRIMAKIA


Pertsona edo entitate eskatzaile guztiek bete behar dute inprimaki hau, isurketa mota edozein dela ere, salbu eta saneamendu-sistemen gainezkatze-fluxuak soilik badira. (JPHEren 246.2.d) art., eta 459/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzkoa).

Itsas-lehorreko jabari publikora egiten diren isurketen kasuan, pertsona edo entitate eskatzaile guztiek bete behar dute inprimaki hau, isurketa mota edozein dela ere.

OHARRA: Ur-araztegi bat baino gehiago badago, araztegi bezainbeste A) atal (UR-ARAZTEGIAK) bete beharko dira. Kontuan izan behar da A) atala 7 atalez osatuta dagoela eta, beraz, araztegi bakoitzerako guztiak bete behar direla.

A) UR-ARAZTEGIAK

i. HUA hondakin-uren araztegi bat baino gehiago egonez gero, modu korrelatiboan zenbakituko dira, araztegi bakoitzeko A) atal bat betez.
ii. 2.000 biztanle-baliokideko edo gehiagoko karga kutsatzailea duten hiri-isurketen kasuan, HUAren kode ofiziala adierazi beharko da.
HUAren kode ofiziala ezagutzen ez baduzu, galdetu Uraren Euskal Agentziari.
iii. Udal-isurketen kasuan, ezinezkoa baldin bada telefonoa eta faxa identifikatzea, dagokion uren udal-zerbitzua adieraziko da.
iv. HUAren arazketa mota espezifikoa adierazi beharko da.
v. HUAn tratatuko diren hondakin-ur gordinak identifikatu behar dira, eta, horretarako, 3.2 inprimakian emandako zenbakia erabiliko da.
vi. Arazketa-prozesuaren diagrama labur bat egingo da, prozesuaren faseak eta etapak adieraziz. Araztu aurreko hondakin-ur gordinen karakterizazioari dagokion gunea adierazi behar da (karakterizazio 3.2 inprimakian egindakoa da). Adibide gisa, honako diagrama hau erantsi da:



vii. Atal honetan, zehaztuko da hondakin-uren araztegiak aukerarik duen al ez tratatu gabeko edo partzialki tratatutako hondakin-uren emariak ingurune hartzailera desbideratzeko, eta, hala bada, azaldu beharko da noiz egiten den eta zergatik egiten den. Gainera, adieraziko da zer tokitan egiten den desbideratzea ur-araztegiaren barruan. Kasu horretan, 5'.1 inprimakia bete beharko da. Aitzitik, ez dago 5'1 inprimakia bete beharrik, efluentea tratamendu-faseren batetik igaro gabe desbideratzen bada eta ondoren berriro lerrora itzultzen bada ibaian behera dagoen punturen batean.

viii. Alde horretatik, entitate kudeatzaile baimendutzat hartzen da hondakin arriskutsuak ezabatzea, balorizatzea edo tartean biltegiratzea jarduera nagusi duen pertsona fisiko edo juridiko oro, horretarako administrazio-baimena badu.

ix. HUAn tratatutako urei dagokien kontrolgunearen zenbakia adieraziko da, 3.3 eta 3.4 inprimakietan emandako zenbakien arabera.

x. HUAn tratatutako urei dagokien isurgunearen zenbakia adieraziko da, 3.3 eta 3.4 inprimakietan emandako zenbakien arabera.

xi. Labur-labur deskribatuko dira ur-araztegien kontrol-elementuak eta emaria neurtzeko eta laginak hartzeko sistemak, horretarako gaitutako instalaziorik dagoen adieraziz eta kontrol-elementu horietara sartzeko modua zehaztuz.

B) INGURUNE HARTZAILERA EBAKUATZEKO SISTEMA

xii. Koadro edo diagrama bat marraztu behar da, eta han laburbildu adierazpenean, aurretik betetako inprimaki hauetan, zehaztutako informazioa: Hondakin-uren jatorria, Hondakin-ur gordinen karakterizazio-puntuak, Hondakin-uren araztegiak, Kontrolguneak, Lotutako isurguneak eta Aurreikusitako ebakuazio-sistemak.

Diagraman, aurreko inprimakietan elementu hauei esleitutako zenbakiak adierazi behar dira:

a) Hondakin-uren jatorria
b) Hondakin-uren fluxuak
c) Hondakin-ur gordinak
d) Hondakin-uren araztegiak
e) Kontrolguneak
f) Isurguneak

Isurketa lurpeko uretara bideratzen bada, eremu ase gabea mugatu behar da, ebaki hidrogeologiko egokia eginda.

Jarraibide orokorretan jasotako diagramen adibideak erabili behar dira, isurketa-eskabidea eta -adierazpena betetzeko.

C) ISURKETAK INGURUNE HARTZAILEAN ERAGITEN DITUEN ONDORIOEN EBALUAZIOA

xiii. Kontuan hartuko dira isuritako kutsatzaile motak, bakoitzaren karga eta kontzentrazioa eta ingurune hartzailearen ezaugarri fisikoak (espero diren diluzioak, korronte-eremuak, itsasadarrak, badiak, etab.), bai eta ingurune horren erabilerak ere, bainuari, laboreei, arrantzari eta abarri dagokienez.

D) ISURKETA ZAINTZEKO ETA KONTROLATZEKO PLANA

xiv. Isurketa zaintzeko eta kontrolatzeko planaren proposamen bat erantsiko da, honako alderdi hauek jasoko dituena:

a. Hoditeriaren egitura zaintzea (urpeko isurbideen edo eroanbideen kasuan).
b. Efluentea aldizka kontrolatzea; horretarako, emaria eta parametro bereizgarriak neurtu behar dira.
c. Ur hartzaileak kontrolatzea: horretarako, hala badagokio, laginketa-estazioen sare bat erabiliko da, isurketak izan dezakeen eragina adierazteko modukoa.
d. Jalkinak eta organismoak kontrolatzea.

OHARRA: Atal horiek luzeak baldin badira, aparteko dokumentu batean aurkez daitezke, eranskin gisa.